

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

74/2024 lehendakaritzako ebazpena. Interesdunen epatzeak eta espediente administratiboaren bidalketa epaitegira

Guardian, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako presidente José M^a Elvira Ceballos, Olatz Sanz Urzelai idazkari-kontu-hartzailearen laguntzarekin,

Esaten du,

2024ko ekainaren 19an, errekursoaren iragarki bat jakinarazi zitzaien erakunde honi Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 4. zenbakiko Epaitegitik.

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako berdintasun-teknikariaren lanposturako lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuari dagokiona hain zuzen ere.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoa betez, ebazpen hau idatzi da, administrazio-espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 4 zenbakiko Epaitegira bidaltzeko.

Aurrekoa oinarri hartuta, Kuadrillako lehendakaritzak honakoa ebazten du:

Lehenengoa. Epatzeak eta interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen hau, administrazio-espedientea bidaltzea erabakitzen duena, hartu eta bost eguneko epean jakinarazi behar zaie interesdun gisa agertzen diren guztiei, eta epatu egiten dira errekurso honetan demandatu gisa ager daitezzen bederatzi eguneko epean (AAJLko 49.1 artikulua).

Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzen da, 39/2015 Administrazio Prozeduraren Legearen 45.1 artikulua idazkeran oinarrituta (norgehiagoka-prozedurei buruzkoa). Horrela, prozesuan interesdun izan daitezkeenei jakinarazteko betebeharra betetzen da, demandatu gisa pertsonatu daitezzen.

Bigarrena. Eskatutako administrazio-espedientea dagokion epaitegira bidaltzea, gehienez ere 20 egun balioduneko epean, Kuadrillako administrazio-erregistroan sartu zen jakinarazpen judizialek zenbatzen hasita.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea kuadrillako Osoko Bilkurari, egiten den lehenengo bilkuran.

Guardian, 2024ko uztailaren 17an

Lehendakaria

JOSÉ M^a ELVIRA CEBALLOS

Idazkari-Kontuhartzailea

OLATZ SANZ URZELAI